

mantangorri

berria

Gaztetxoan astekaria 375. zenbakia

Larunbata, 2010eko irailaren 4a



Altxorren bila

FELIX UGARTE ELKARTEA



ANIMALIEN ERREINUAN

Kastore europarra

6



BA AL DAKIZU...?

Egutegia errepikatzen dela 28 urtean behin?


7



IPUINA Santurtziko manuak

Irtenbide bakarra (VIII)

16



- 1. Hodeietatik lurrera**
Hodeietatik lurreko bidean, atmosferan dagoen karbono dioxidoarekin elkartzen da euri ura.
- 2. Pitzaduretan barna**
Mendiak dituen pitzadura eta zuloetatik sartzen da euri ura mendiaren bihotzera.
- 3. Harria jaten**
Euri urak duen azidoari esker, harria jaten eta zulatzen hasten da.
- 4. Kobazuloen sorrera**
Higatze prozesu luze baten ondorioz, pasabideak eta gela handiak sortzen dira mendiaren barruan.

FELIX UGARTE ELKARTEA

Lurpeko misterioak agerian

Lur azpian ezkutatzen diren altxorrek hurrei erakusteko materiala argitaratu du Felix Ugarte espeleologia elkarteak: 'Mendien misterioak'. Ipuin bat eta ikus-entzunezko lan labur bat prestatu dute, kobazuloen sorrerari, historiari eta garrantziari buruz hitz egiteko

Planeta magikoa da Lurra. Magikoa eta ikusgarria. Eta ez kanpotik soilik, baita barrutik ere. Lurrazalean ez ezik, lurpean ere edertasun ugari ezkututzen baitira. Tamalez, ezkutuko mundu bat da lurpekoa; espeleologoek salbu, inork gutxi ezagutzen baitu. Gezurra dirudi, baina unibertso bat ezkututzen da gure oinen az-

pian. Mundu bat. Lurpeko mundu misterioitsu eta eder hori ezagutaraztea da Felix Ugarte espeleologo elkartearen nahia. Urteak daramatza elkarteak Lurra barrutik aztertzen eta aztertutako jendeari erakusten. Lur planetaren barrunbeak ezkututzen duena gaztetxoei erakusteko, *Mendien misterioak* izeneko liburua argitaratu du elkarteak. Kutxak, Gipuzkoako Foru Aldun-



MARRAZKIAK: AITZIBER ALONSO

diak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu dute proiektua. Istorio labur eta simple baten bidez, kobazuloen sorrera, garapena, erabilera eta garrantzia kontatzen dute liburuan. Txomin Ugaldetek sortu du istorioa, eta Aitziber Alonsok apaindu du kontaketa, ilustrazio koloretsuz eta ederrez. 6 eta 10 urte bitarteko haurrentzako da materiala. *Mendien misterioak*, baina, ez da istorio soil bat, liburuarekin batera ikus-entzunezko lan bat prestatu baitute. Hamabi minutuko bideo baten bidez, lurpeko uniber-

tsoaren irudiak eta misterioak jaso dituzte. Giorgio Studer arduratu da bideoa zuzentzeaz eta koordinatzeaz. Espeleologiaren eta lurpeko munduaren berri ematea da materialaren asmoa. «Haurrek txikitatik espeleologiaren berri izatea da helburua. Lur azpian mundu bat ezkututzen dela jakinaraztea da asmoa», zehaztu du Txomin Ugaldetek, elkarteko kideak eta ipuinaren egileak. «Lurra betirako bizilekua da, bizileku bakarra, eta, beraz, oso ongi zaindu beharreko altxorra dela jakinarazi nahi dugu», dio Ugaldetek. Lurrak duen balioaz eta hedadura ohartarazteko, bistan ez dagoen munduari buruz mintzo dira elkarteko kideak liburuan eta bideoan. Lur planeta ez baitu lur gainean dagoen zatiak bakarrik osatzen,

baita ezkutuan dagoen eremuak ere. **Kobazuloen sorrera** Kobazuloak nola sortzen diren azalduz hasten dute kontaketa. Euri uraren lanaren emaitza dira kobazuloak, eta kareharrizko inguruetan sortzen dira bakarrik. Hodeietatik lurreranzko bidean, atmosferan dagoen karbono dioxidoarekin nahasten da euri ura. Azido horrek kareharria zulatzen laguntzen dio euri urari. Harriaren zartadura eta zuloetan barneratu, eta, denboraren poderioz, harria jaten joaten da euri ura. Halaxe sortzen dira lur azpiko pasabide estuak eta gela ikusgarriak. Higatze prozesu luze baten ondorio dira, beraz, kobak. Uraren eginahalaren eta lanaren fruitu.



Fitxa

- **Izenburua:** 'Mendien misterioak'.
- **Formatua:** Ipuina eta DVDa.
- **Testua:** Txomin Ugalde.
- **Marrazkiak:** Aitziber Alonso.
- **Orrialde kopurua:** 36 orrialde, koloretan.
- **Bideoaren gidaritza:** Giorgio Studer.
- **Bideoaren iraupena:** 12 minutu.
- **Musika:** Tomas San Migel.
- **Salneurria:** 12 euro.
- **Argitaratzailea:** Felix Ugalde elkarteak.

Ingurune ederrak eta ikusgarriak dira kobak. Ustez, leku mortuak dira, baina ez da hala, intsektu eta animalia bizidun askoren babesleku eta bizileku baitira. Eta, gaur egun, soilik animaliak bizi badira ere, historiaurrean eta urte luzez, gizakiaren bizileku izan ziren. Euskal mitologiako pertsonaia askoren babesleku ere badirela gogoratzen du espeleologo taldeak. Geologikoki ez ezik, kultura, historia eta mitologia aldetik ere garrantzi berezia dute, beraz, kobazuloak. Elkarteko kideek diote lurpeko mundua oso zabala eta garrantzitsua izanagatik oso gutxi hitz egiten dela ari buruz. «Lurreko fauna, flora eta munduari buruz informazio ugari dugu; ez, ordea, barruko unibertsoari buruz. Merkatuan ez dago lur azpiko munduari buruzko azalpenak ematen dituen libururik, ezta bideoirik ere; eta are gutxiago euskaraz», kexu dira elkarteko lagunak. Arrazoi horrexegatik erabaki zuten material hori prestatzea. Agerian den mundua bezain garrantzitsua baita ezkututzen dena.